

Zugarramurdiko Sorginen Museoa



Irakurketa Errazean

Museoko sarrera

Zugarramurdiko Sorginen Museoaren atarian zaude.

Hau da eraikina eta sarrera:



Eraikin barruan

turismo-informazio gune bat dago.

Gune honetan lanean ari diren pertsonak zure bisita antolatzen lagunduko dizute.

200 metrora ezkerretara

Zugarramurdiko Leizea dago.

Leize bat haitzulo bat da.

Leizea herriko tokirik ospetsuena da eta oso garrantzitsua da bere historian.

Hau da Zugarramurdiko Leizea:



Zer aurkituko duzu museo honetan?

Museoan sartzean

kartel hau ikusiko duzu:



































































































































Kartel honetan informazioa dago

Zugarramurdiko Sorginen Museoari buruz.

Informazioa gaztelaniaz eta euskaraz dago.

Museo honek

Xareta izeneko eskualdean

1608 eta 1614. urteen artean

gertatu zena gogoratzen du.

Hau da, museo honek

duela 400 urte baino gehiago

gertatutako historia kontatzen du.

Urte horietan

herriko pertsona askori,

adibidez, gizon, emakume eta hurrei,

sorgintzat hartu zituzten.

Epaiketa handi bat egin zuten.

Sorginkeriagatik egin den

epaiketarik handiena izan zen.

Epaiketa horretan,

sorgintzat hartu zituzten pertsonak hil zituzten.

Epaiketan

elizarentzat lan egiten zuen talde batek

erabakiak hartzen zituen.

Museo hau omenaldi bat da

epaiketa hori sufritu zuten pertsonentzat.

Hau da, museoa pertsona hauei eskainita dago.

Pertsona hauetako asko

Zugarramurdin jaio ziren.

Museoak garai horretako jendea nola bizi zen

eta mundua nola ikusten zuen

hobeto ulertzen laguntzen digu.

Museoak gonbidatzen gaitu pentsatzera
zer gertatu zen eta zergatik gertatu zen.

Ez da museo bat
non bakarrik suteak
eta hegan doazen erratzak ikusten diren.

Museoak 4 solairu ditu.
Solairu bakoitzean
gauza desberdinak ikus ditzakezu.

Hau da museoko panel gida:



Zer dago 0 solairuan?

Museoan sartu bezain pronto
honako hau aurkituko duzu:

- **Bisitariantzako arreta-mahai bat.**

Hau da arreta-mahaia:



Arreta-mahaiak altuera bikoitza du.

Honek esan nahi du

gurpildun-aulkia erabiltzen duten pertsonak
erabili dezaketela.

Arreta-mahaia pertsona guztientzat irisgarria da.

Gainera **indukzio magnetikoko begizta** bat dago.

Indukzio magnetikoko begizta

audiofonoak erabiltzen dituzten pertsonentzako
komunikazio-sistema bat da.

Behar baduzu, eskatu dezakezu.

- Museoan oroigarriak
eta museoko objektuak dituen
denda bat ere badago.
- **Pantaila ukigarria duen kiosko bat dago.**
Hau da, pantaila hori ukituz
informazio turistikoa bilatu dezakezu.




Aurrera pixka bat jarraituz gero
komun irisgarriak aurkituko dituzu.
Komunak unisex dira,
hau da, genero guztientzat dira.

Komunetatik ezkerrera biratzen baduzu
eta fondoraino jarraitzen baduzu,
entzunareto batera iritsiko zara.
Entzunareto bat auditorio bat da.

Hau entzunaretoaren atea da:



Hau da entzunaretoa barrutik:



Hemen ikusiko duzu

Sorginen ehiza izeneko bideoa.

Bideoak 13 minutu irauten du

eta espazioa egokituta dago

mugikortasun urria duten pertsonentzat.

Entzunaretoaren ondoan

igogailu irisgarri bat dago

beste solairuetara igotzeko.



Zer dago 1. solairuan?

Hau 1. solairuko irudi bat da:



Solairu honetan

2 gune desberdin daude.

1. **Mito baten sorrera.**

Gune honetan

zuhaitz baso bat irudikatzen duten

zutabe asko ikus ditzakezu.

Hauek dira zutabeak:



Gune hau omenaldi bat da

Logroñon sorginkeriagatik zigortu zituzten pertsonentzat.

Hau da, pertsona hauei eskainita dago.

Gainera, Maria Ximildeguien historiari buruzko bideo bat ikus dezakezu.

Maria Ximildegui gazte bat zen sorginkeria egitea akusatu ziotena. Emakume hau sorgin ezagun bat zen. Berak Urdaxeko abadeari esan zion beste pertsona batzuek sorginkeria egiten zutela. Mariaren salaketa honen ondorioz, sorginkeriaren epaiketa hasi zen.

Gune honetan

Urdazubiko Abadearen figura eta Urdazubiko Monasterioaren irudia ikus ditzakezu.



2. Inkisizio prozesua.

Gune honek azaltzen du
zer zen Santa Inkisizioa.

Santa Inkisizioa pertsona talde bat zen
elizaren pentsaerarekin bat ez zetorren
jendea zigortzen zuena.

Gune honetan kontatzen da
zer gertatu zen
1609 eta 1614. urteen artean.

Sorginkeriagatik egin ziren

7 mila epaiketei buruzko informazioa ematen da.

Hau da gunea:



Salazarri buruz ere hitz egiten da.

Salazar Santa Inkisizioaren taldeko kide bat zen.

Hau zen Salazarren laneko tokia:



Zer dago 2. solairuan?

Hau 2. solairuko irudi bat da:



2. solairuan

2 gune desberdin ikus ditzakezu.

1. Munduaren ulermena.

Gune honek azaltzen du
duela mende asko
Nafarroako herrietan bizitza nolakoa zen.
Herriek lotura oso sendoa dute
naturarekin eta euskal kulturarekin.

Gune honetan
bideoak eta pantaila ukigarriak daude
istorio eta pertsonaia fantastikoekin.
Hauek dira pantailak:



2. Antzinako jakituria.

Gune honetan

herrietako emakumeei buruz hitz egiten da.

Hau da gunea:



Batez ere, etxekoandrearen figurari buruz
hitz egiten da.

Emakume hauek:

- Etxea eta familia zaintzen zuten.
- Lurra lantzen zuten.
- Errespetua eta eskerrak adierazten zizkieten jainkoei eta hildako pertsonari, babestu zitzatela eskatzeko.

Emakume hauek haien amengandik ikasi zuten:

- Landareak eta
medizina bezala erabiltzen zituzten.

- Erditzeetan laguntzen zuten.
Erditzea haurrak jaiotzea da.

Emakume hauek batzuetan,
haien ezagutza
gauza txarrak egiteko erabiltzen zuten.
Hori egiten zutenean,
sorgintzat hartzen zituzten.

Solairu honetan
akelarreei buruzko bideo bat ere badago.
Akelarreak leizean egiten ziren
bilera sekretuak ziren.
Irudi honetan bideoa ikus dezakezu:



Zer dago 3. solairuan?

Hau 3. solairuko irudi bat da:



3. solairuan erakusketa bat
eta jarduera desberdinak ikus ditzakezu.

Erakusketa hau
Gustav Henningsen-en lanaren parte bat da.

Gustav Henningsen


sorginkeriaren gaia asko ikertu zuen
pertsona bat izan zen.

Solairu hau **jarduera berezietarako**
edo **tailerrak egiteko** ere erabiltzen da.

Zer irisgarritasun-neurri daude museoan?

Museoak honako hauek ditu:

- **Pantaila-irakurgailua duen webgunea**
ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko.
Hona hemen museoko webgunea:



- **Altuera bikoitzeko arreta-mahaia**
gurpildun-aulkia erabiltzen duten pertsonentzat.
Hau da arreta-mahaia:



- **Indukzio magnetikoko begizta.**

Komunikazio-sistema bat da

audiofonoak erabiltzen dituzten pertsonentzat.

Hau da indukzio magnetikoko begizta:



- **Ukipen-kiosko irisgarria**

gurpildun-aulkia erabiltzen duten pertsonentzat.

Hau a kioskoa:



- **Komun irisgarriak.**



- **Igogailu irisgarria**
solairu guztietatik mugitzeko.



- **Sarrera nagusia** eskailerarik gabe.



- **Aparkalekua** ate ondoan mugikortasun urria duten pertsonentzat.
- **Testu inprimatuak** toki irisgarrietan gorpildun-aulkia erabiltzen duten pertsonentzat.
- **Bisitariantzako gida Irakurketa Errazean eta PDF irisgarrian.**
Irakurketa Erraza testuak sinpleago egiteko modua da ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonei laguntzeko.
- **Liburu bat braillez eta erliebearekin** ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat.
Liburua gaztelaniaz, euskaraz eta frantsesez dago.
- **Harrerako bideoa zeinu-hizkuntzan dago,** museoari buruzko PDF-a Irakurketa Errazean dago eta informazioa audio eta orientazioarekin.

Texto adaptado y validado
por la **Oficina de Accesibilidad Cognitiva de Navarra**
de **ANFAS**

Logo europeo de lectura fácil: "© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe.
Más información en <https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>

